

***Euskadiren-Iparralderen arteko Memoranduma***
Firma Memorando Euskadi-Iparralde

2019-10-07 Ajuria Enea 07-10-2019

Lehendakariaren hitzaldia-Intervención del Lehendakari

Euskal Hirigune Elkargoaren presidentea, jaun-andreok, egun on eta ongi etorri.

Gaur mugarria jarri dugu Hegoalde eta Iparralderen arteko harremanen historian.

Lehen aldiz, gure bi Erakundeen arteko Lankidetzarako proiektu bat adostu eta sinatu dugu. Bi lurraldeen arteko mugaz gaindiko elkarlana nolakoa izatea nahi dugun adierazi dugu.

Etorkizun hurbilean lortu nahi ditugun helburuak eta garatu nahi ditugun ekinbideak definitu ditugu.

Era berean, erronkei aurre egiteko partekatzen ditugun **balioak azpimarratu ditugu**: askatasuna, demokrazia, justizia eta elkartasuna, hain zuzen ere.

Hoy firmamos el primer acuerdo institucional entre nuestras dos Comunidades a ambos lados del Bidasoa.

Nuestro acuerdo es dar respuesta a los retos comunes desde la colaboración. Reforzar nuestras relaciones institucionales a través de proyectos compartidos de mutuo interés. Apostar por la cooperación transfronteriza de proximidad.

Esta vía de cooperación contribuye a afrontar, de manera más efectiva, los retos globales en el marco de la Unión Europea. **Retos sociales, económicos, institucionales y políticos.**

Memorando hau ez da zerotik abiatzen.

Ibilbide bat badugu, elkarlana zer den badakigu. Pirinioez Gaindiko Konferentzia Atlantikoa, Ardatz Atlantikoaren Batzordea eta Euroeskualdea elkarlanerako espazioak dira.

Orain aurrera pausu bat ematen dugu.

Mugaz gaindiko lankidetzeta lagungarria da Europar Batasunean dauden erronka globalak modu eraginkorragoan gauzatzeko.

Brexit-aren tamainako erronka edota ekonomia arloan bizi dugun ez egonkortasunei aurre egiteko, esperientziak partekatu eta estrategia bateratuak garatzeak berebiziko garrantzia du.

Esta nueva fase de relaciones con la Comunidad de Iparralde contribuirá a **institucionalizar nuestro trabajo compartido**.

Nos va a permitir dar un paso más, estrechar lazos y fortalecer los intercambios y las relaciones entre los agentes económicos, sociales, académicos y culturales.

Nos va a permitir avanzar en la colaboración y el intercambio de buenas prácticas.

Además, otorgamos una especial relevancia al momento de este acuerdo. Va a contribuir a cohesionar y fortalecer el **Eje Atlántico Europeo** ante la inminencia de un Brexit que puede debilitar este espacio de interés común. Es necesario aunar fuerzas para superar el riesgo de quedar como un área periférica de la Unión Europea.

Azken hilabeteotan aurrerapen garrantzitsua egin dugu landu nahi ditugun lan esparruak eta lehentasunak finkatzen:

- Mugaz gaindiko mugikortasuna;
- Goi-mailako irakaskuntza, prestakuntza eta ikerkuntza;
- Garapen ekonomikoa eta turismoa;
- Nekazaritza;
- Lurralde-garapen iraunkorra;
- Ingurumena eta biodibertsitatea;
- Kultura eta euskara.

Esparru hauetan hainbat proiektu abian dira eta orain **lankidetzan indartuko dugu**.

Iniciamos una nueva etapa de trabajo institucional. Vamos a movilizar todo nuestro esfuerzo para promover iniciativas transfronterizas que fomenten la convivencia y la vida en comunidad. Vamos a reforzar la cooperación mutua para responder a un deseo compartido por la ciudadanía: **vivir mejor juntos** en una sociedad multicultural y tolerante.

Mugarik gabeko European indarra elkarlanean dago.

Elkarrekin lan egiten jarraituko dugu gure **etorkizuna elkartzen jarraitzeko**.

Eskerrik asko!